

3/2021 AKTA
NAFARROAKO UDAL ETA KONTZEJUEK FEDERAZIOAREN BATZORDE BETEARAZLEAK
APIRILAREN 13an EGINDAKO BILERA

BERTARATUAK:

LEHENDAKARIA:

Juan Carlos Castillo Ezpeleta jn., Azkoiengo alkatea

1. LEHENDAKARIORDEA:

Mario Fabo Calero jn., Martzillako alkatea

2. LEHENDAKARIORDEA:

Ander Oroz Casimiro jn., Antsoaingo alkatea

BATZORDEKIDEAK:

Aitor Larraza Carrera jn., Irurtzungo alkatea
Oihan Mendo Goñi jn., Garesko alkatea
Jesús Esparza Iriarte jn., Kasedako alkatea
M^a Carmen Segura Moreno and., Alesbesko alkatea
Raúl Maiza González jn., Berriozarko alkatea
Óscar Bea Trincado jn., Cintruenigoko alkatea
David Alvarez Yanguas jn., Castejongo alkatea.
Enrique Maya Miranda jn., Iruñeko alkatea.
Alejandro Toquero Gil jn., Tuterako alkatea.
Pedro José Soto Eguren jn., Gesalazko alkatea.
Manuel Romero Pardo jn., Aranguren Ibarreko alkatea
Mikel Landabere Villanueva jn., Aurizberriko Kontzejuko burua
Cristina Recalde Vallejo and., Artikako Kontzejuko burua
Sabina García Olmeda and., Izarbeibarko Mankomunitateko lehendakaria
Fernando Ferrer Molina jn., Erriberako Mankomunitateko lehendakaria
Mikel Zabaleta Aramendía jn., Leitzako alkatea
Ángel Martín Unzue Ayanz jn., Agoizko Alkatea
Yolanda González García and., Vianako alkatea.
David Oroz Alonso jn., Urdiaingo alkatea
Xabier Alcuaz Andueza jn., Tafallako zinegotzia

Ezin etorria adierazi dute:

Esther Lacasta Pérez-Ilzarbe and., Basaburuako alkatea
Itziar Semberoz Garralda and., Espartza Zaraitzuko alkatea

IDAZKARIA:

Berta Enrique Cornago and.

Bi mila eta hogeita bateko apirilaren hamahiruan, arratsaldeko bostetan, aldamenean adierazitakoak bildu dira era telematikoan Zoom aplikazioaren bidez, Batzorde Betearazleko kideak baitira. Bilkuraren buru Juan Carlos Castillo Ezpeleta jn. aritu da, eta idazkari, berriz, Berta Enrique Cornago and. Hona hemen

GAI-ZERRENDA

- 1.- Aurreko bilkuraren aktaren berri ematea eta hura onestea.
- 2.- Batzorde eta Kontseilu sektorialeiei buruzko informazioa.
- 3.- Batzorde eta Kontseilu sektorialetako ordezkariak izendatzea.
- 4.- NUKFri atxikitze eskaerak.
- 5.- 2020ko Kontuak onestea.
- 6.- NUKFren 2021eko kuotak.
- 7.- Elkarlanerako hitzarmena NUKFren eta Total Gas y Electricidad España SAU enpresaren artean.
- 8.- Jarduketa protokoloa Herritarrekiko Harremanetako Departamentuaren eta NUKFren artean Europako Funtsei buruz.
- 9.- Next Generation programarekin lotuta egindako jarduketaren informazioa.
- 10.- Lehendakariaren informazioa.
- 11.- Galde-eskeak.

1. PUNTUA- Martxoaren 9ko ohiko bilkuraren aktaren berri ematea eta hura onestea.

Aurreko bilkuraren aktaren kopia igorrita deialdiarekin batera, aldez aurretik irakurri beharrik gabe, lehendakariak galdetu du Batzorde Betearazleko inork oharrrik duen haren inguruan.

Inork ez du oharrrik egin; horrenbestez,

ERABAKI DA:

2021eko martxoaren 9an egin bilkuraren akta onestea.

2. PUNTUA. Batzorde eta kontseilu sektorialeko buruzko informazioa.

Honako Batzorde eta Kontseiluen berri eman dute:

- **Nafarroako Gardentasun Kontseilua, (2021/03/15).** Informazioa eskuratzeari buruzko erreklamazioak izapidetu zituzten eta kontseilu honek parlamentariak aurkeztutako informazio-erreklamazioak ebazteko duen eskumenari aldeko irizpena eman zioten.
- **Nafarroako Kultura eta Arteen Kontseilua, (2021/03/23).** Kontseilua eratu eta zenbait lantalde sortu ziren.
- **Trantsizioa kudeatzeko batzordea, (2021/03/24).** Aldaera britainiarrarekin kutsatzeak ekarriko duen egoera zaila agerian utzi zuten. Garrantzitsutzat jo zuten herritarrei jakinaraztea kutsatzeko eta ospitaleratzeko arriskua areagotu egiten dela aldaera horrekin. Federazioak, bere kezka adierazi zuen txertoak iristeko aurreikuspenak bete ez direlako.
- **Eskolatzeko Batzordea.** Ikastetxeekin itunak egiteko proposamenaren berri eman zuten.
- **Kontratazio Publikoaren Batzordea (2021/03/31).** Batzordearen jardueren memoria aurkeztu zuten eta kontratuen araudia aldatzeko proposamen bat egiten ari direla jakinarazi zuten, nagusiki, next generation programarekin zerikusia duten proiektuen kontratazioa arintzeko.
- **Nafarroako Babes Zibileko Batzordea, (2021/03/31).** Zenbait kanpoko larrialdi plan homologatu zituzten eta jakinarazi zuten fenomeno meteorologikoen plan berezi batean lanean ari direla. Halaber, dirulaguntza deialdi baten onespina jakinarazi zuten aurreko deialditik kanpo geratutako toki entitateek larrialdi planak egin ditzaten.

ERABAKI DA:

Jakinaren gainean daudela adieraztea.

3. PUNTUA- Batzorde eta kontseilu sektorialetako ordezkariak izendatzea.

Honako ordezkarien izendapena proposatu da:

- Irisgarritasun Unibertsala eta Aukera-berdintasuna sustatzeko kontseilua:
 - Juan Carlos Castillo Ezpeleta, NUKFko lehendakaria.
 - Berta Enrique Cornago, NUKFko idazkari nagusia.

ERABAKI DA:

Izendapena adierazitako moduan onestea.

4. PUNTUA.- NUKFri atxikitzeako eskaerak

Arakilgo Ekai Kontzejuak NUKFri atxikitzeako egindako eskaeraren berri eman da.

ERABAKI DA:

Entitate horren eskaera aintzat hartzea. Horrenbestez, entitatea NUKFko kide izatera igaroko da bilkuraren egunetik aurrerako ondorioekin.

5. PUNTUA.- 2020ko Kontuak onestea.

Lehendakariak kontuen proposamena aurkeztu du. Azaldu duenez, aurreko urteekin erkatuta, kontuen gauzatzea apalagoa izan da osasun krisia dela medio; 94.000 euroko superabita dagoela jakinarazi du.

Ondoren, Cabasés jaunari hitza eman dio. Honek partida aipagarrienak azaldu ditu aurrekontuan izan duten gauzatze handiagoa edo txikiagoa kontuan harturik. Biltzar aretorako ekipamendu gastuak jasotzen dituen Federazioan bertan inbertsioak egiteko partida aipatu du, aurten ekipo informatikoetan eta altzarietan egingo diren inbertsioak egiteke daudela adieraziz.

Halaber, udal langileentzako prestakuntza programaren gauzatzea apalagoa izan dela azaldu du bai eta ordainsarien eta dieten partidarena ere apalagoa izan dela.

Ondoren, hitza eman zaie bertaratutakoei.

Álvarez jaunak, Castejongo alkateak, etxabeari eta komunitateari dagozkion gastuen partidari buruz galdetu du. Lehenengo gastuei dagokienean, Federazioak alokairuan duen etxabe bati dagozkio bulegoko espazio eskasia dela eta etxabe horretan dokumentazioa, materiala eta abar gordetzen baitu

erakundeak. Komunitate-gastuen inguruan berriz, federazioak egoitza duen lokalari, Nafarroako Gobernuko jabegokoa denari, dagozkion komunitate-gastuak direla azaldu dute.

Alvarez jaunak, halaber, Concejo aldizkariaren gastuei heldu die aldizkaria paperean bidali beharrean, posta elektronikoko bidez igortzeko eskatuta. Kostu handia dela esan eta aldizkaria mantendu ala ez pentsatu ote den galdetu du.

Azaldu diotenez, aspalditik bidalketa mota hautatzeko aukera ematen dute, hots, irakurleek paperean edo digitalean jaso nahi duten hautatzeko aukera dute.

Zehazki, Echaide jaunak, aldizkariaren zuzendariak, azaldu du aurreko hilabeteen enkarte bat bidali zutela aldizkaria eta buletin digitala jasotzeko hainbat aukera emanaz. Adierazi duenez, oraingoan, gehiengoak paperean jasotzeko aukera hautatzen du.

Jakinarazi du, halaber, ia lurralde federazio guztiek dutela paperezko aldizkari bat eta, modu horretan, NUKFren presentzia instituzionala indartzen dela.

Álvarez jaunak, Castejongo alkateak, gerakinari heldu dio ondoren, eta trebakuntza gehiago eskaintzeko edota zerbitzu teknikoak indartzeko erabil litekeela proposatu du.

Idazkari nagusiak azaldu du NUKFren plan estrategikoaren barruan Federazioaren zerbitzuei eta jardueri buruz hausnartzea aurreikusia dagoela eta orduan aztertuko dela horiek areagotzeko aukera, entitatearen egitura indartzeko aukera eta abar. Batzorde Betearazleak onetsi bezala, plan horren onespenerekin batera parte-hartze prozesu bat egiten da toki entitateek eta hautetsiek NUKFren zereginaren eta jardueren inguruan haien iritzia eman ahal izateko.

Oroz jaunak, Antsoingo alkateak, hitza hartu du Concejo aldizkaria dela eta papera kentzeko eskaerarekin bat eginez jasangarriagoa delako eta horren inguruko eztabaida bat ireki daitekeela proposatu du. Bestalde, federazioaren gerakina zein banku-entitatetan eta banku-baldintzatan dagoen galdetu du.

Cabases jaunak diruzaintzako saldoa zein banku-entitatetan dagoen azaldu du eta, banku-baldintzei dagokienean, diru kopuru zehatz bat gainditzeari dagozkion zergak direla eta, kopuru horiek ez gainditzeko erne daudela zehaztu du.

Recalde andreak, Artikako Kontzejuburuak, gerakina toki entitateetan ezarpen elektronikoaren alorrean inbertsioak egiteko erabiltzeko proposamena egin du.

Fabo jaunak, Martzillako alkateak, Concejo aldizkariaren paperezko argitalpena eteteari dagokionean esan du berak horixe bera proposatu zuela 2021eko aurrekontuak hizpide izan zituztenean.

Gerakinaren erabileraren inguruan, lehendakariak ikusten eta baloratzen joan beharko dutela esan du.

Bozketara jarrita, sei abtentzio daudela, gehiengoz

ERABAKI DA:

2020ko kontuen proposamena onestea Batzar Nagusiaren onespenera jartzeko.

6. PUNTUA. NUKFren 2021eko kuotak.

Kuoten zenbatekoa mantentzea proposatu dute.

ERABAKI DA:

Kuotak proposatutako moduan onestea.

7. PUNTUA.- Elkarlanerako hitzarmena NUKFren eta Total Gas y Electricidad España SAU enpresaren artean.

Lehendakariak enpresa horrekin beste enpresa batzuekin sinatutakoen antzeko baldintzetan hitzarmena egiteko proposamena azaldu du jabari publikoa okupatzeagatik ehuneko bat eta erdiko tasa kudeatzeko.

Oroz jaunak, Antsoaingo alkateak, galdetu du NUKFk hitzarmen horien bidez egiten duen tasaren kudeaketa-lan horren baitan enpresek ordaintzen dutena ikuskatzea ere barne hartzen ote den. Izan ere, zenbait kasutan ikuskaritza horiekin zenbateko handiak berreskuratzen baitira.

Azaldu dutenez, ikuskaritza hori udal bakoitzari dagokio eta, edozein modutan ere, Tracasari eskatu ahal zaiola Ogasunarekin sinatutako hitzarmenaren baitan. Oroz jaunak adierazi du egokia izanen litzatekeela udalei gogoraraztea ikuskaritzak egiteko aukera dutela.

Alvarez jaunak, Castejongo alkateak, hitzarmenaren atal batzuk argitzeko eskatu du bai eta hitzarmen horri atxikitzea beharrezkoa den.

Batzorde Betearazlearen onespenera jarrita,

ERABAKI DA:

Total Gas y Electricidad España SAU enpresarekin elkarlan hitzarmena, akta honi atxikirik doana, onestea.

8. PUNTUA.- Jarduketa protokoloa Herritarrekiko Harremanetako Departamentuaren eta NUKFren artean Europako Funtsei buruz.

Lehendakariak Herritarrekiko Harremanetako Departamentuarekin batera Europako politiken eta funtsen alorrean landu den protokoloa azaldu du. Europako proiektuetan gobernuaren parte-hartzea areagotzeko

eta funtsen lorpena handitzeko sortu berri den Europako Proiektuen Bulegoarekin gauzatuko litzateke elkarlan hori.

Protokolo horrekin, toki entitateek parte hartzeko moduko Europako politikei eta finantzazioari buruzko informazioa Federazioari igortzeko konpromisoa hartu du aipatu bulegoak bai eta informazio horrek sor ditzakeen zalantzen aurrean NUKFri aholkularitza emateko konpromisoa hartu ere.

NUKFK berriz, jasotzen duen informazioa toki entitateei igorriko die eta sortzen diren zalantzak, proiektuak eta ekimenak bulegoari helaraziko dizkio parte-hartze prozedura egokienei buruzko aholkularitza eman dezan.

Maya jaunak, Iruñeko Udaleko alkateak, protokoloa oso ongi iruditzen zaiola adierazi du baina, betiere, elkarrekin koordinatzeko eta lan egiteko beste bide bat gehiago bada.

Oroz jaunak, Antsoaingo alkateak, ere koordinatzeko bide hori positibotzat jo du baina adierazi du Federazio gisa, bide propioa eduki beharra dagoela eta aholkularitza zehatzago bat edukitzea egoki jo du.

ERABAKI DA:

Europako Funtsei buruzko Herritarrekiko Harremanetako Departamentuaren eta NUKFren arteko jarduketa protokoloa onestea.

9. PUNTUA.- Next Generation programarekin lotuta egindako jarduketaren informazioa.

Lehendakariak Next Generation programaren inguruan hilabetez zehar egindako jarduketaren berri eman du.

- Martxoaren 12an Unibertsitateko, Berrikuntzako eta Eraldaketa Digitaleko Departamentuarekin izandako bilera. Bertan, Federazioari jakinarazi ziotenez, konektagarritasunaren plan bat finkatu nahi dute eta, horretarako, Federazioarekin elkarrizketa irekia eduki nahi dute. Adierazi zuten, administrazio elektronikoa da beste lehentasunetariko bat eta proiektu hori toki administrazioak gidatu behar duela esan zuten eta departamentua proiektua gauzatzeko prest dagoela.
- Martxoaren 15ean lurralde kohesiorako kontseilariarekin izandako bilera. Digitalizazioaren alorrean lantzen ari diren proiektuen berri eman zuten bai eta Horniduraren Plan Zuzentzailearekin lotuta egiten ari diren jarduketaren berri eman ere, garraioari eta mugikortasunari eragiten dieten proiektuen inguruan.
- Martxoaren 17an Europako Funtsei buruz Parlamentuan egindako agerraldia. Federazioak bere proposamena aurkeztu eta talde parlamentarioen babesa eskatu zuen.
- Ongizatearen Kontseilua 2021eko martxoaren 22an. Bilkura horretan, departamentu horrek aurkeztuko dituen lerro eta proiektuak azaldu zizkieten Federazioari.
- FEMPeK Federazioari igorritako adierazpenaren berri eman zen. FEMPeren Gobernu Batzordeak onetsitako adierazpen horretan, Autonomia Erkidegoek Espainiatik (REACT-EU funtsetatik) jasoko

dituzten funtsen ehuneko hamabosta, gutxienez, toki entitateentzat izatea eskatzen dute. Era berean, Lurralde Federazioen babesa eskatu dute aldarrikapen hori erkidegoetako gobernuei helarazteko. FEMPEk egindako eskaera hori honako Batzorde Betearazle honek hartutako erabakiekin bat datorrela kontuan hartuta, eskaera Nafarroako Gobernuari helaraziko zaiola jakinarazi da.

ERABAKI DA:

Jakinaren gainean daudela adieraztea.

10. PUNTUA.- Lehendakariaren informazioa.

Lehendakariak honako gai hauek aipatu ditu:

- Polizia-koordinaziorako egindako aldizkako bilerak covidarekin lotutako aferak jorratzeko.
- Toki Administrazioaren Departamentuarekin izandako koordinazio-bilerak.
- Joan den martxoaren 10ean Eskubide Sozialetako Departamentuarekin izandako bilera udal gizarte zerbitzuetako langileek adierazitako kezka helarazteko langileen oinarritzko lantaldeak egokitzeari dagokionean.
- Martxoaren 12an Europako Batzordearekin egindako web-mintegia landa-eremuari buruzko ikuspegiaren inguruan.
- Acople elkartearekin izandako bilera. Bertan, elkarteak kezka azaldu zion Federazioari orkestra, kontzertu eta abar gutxi kontratatzen ari direlako.
- Lares elkartearekin egindako bilera. Bertan, adinekoen egoitzen egungo egoerarekin lotutako zenbait gai jorratu ziren.
- Justizia Kontseilariarekin egindako bilera. Bertan, Federazioari jakinarazi zioten lanean ari direla ikusteko zein modutan toki entitateek lagun dezaketen bikote egonkorrak Bikoteen Erregistro Bakarrean inskribatzeko. Izan ere, aipatu erregistro hori ezarriko baita Udal Erregistroak ordezkatzuz.
- Lehendakariak jakinarazi du Osasun Departamentuak jaien afera jorratzeko bilera batera dei egin diola Federazioari.
- Halaber, Nafarroako Osasun Zerbitzuak udalekin elkarlanean gaitasun pertsonalei eta lanbide laginei buruz eskaini asmo dituen ikastaroen berri eman du.

ERABAKI DA:

Jakinaren gainean daudela adieraztea.

11. PUNTUA- Galde-eskeak.

Larraza jaunak, Irurtzongo alkateak, tentsio altuko eta ertaineko energiaren enpresen tributazioari buruz egin diren jarduketan inguruan galdetu du. Azaldu diotenez, Federazioak Ogasuneko Departamentuarekin hitz egin du egin daitezkeen jarduketa-lerro ezberdinen inguruan: tentsio linea horiengatik lurralde kontribuzioa kobratzea eta jabari publikoa okupatzearen tasa kobratzea. Ogasunak adierazi zuen Tracasak egin daitezkeen jarduketak aztertuko dituela.

Maya jaunak, Iruñeko alkateak, gaur Europako funtsen inguruan Nafarroako Gobernuaren lehendakariarekin izandako bilerari heldu dio esanez oraindik ere argitu gabeko alderdiak daudela. Federazioaren lehendakariari eskatu dio berriz ere adieraz dezala toki entitateek gai horren inguruan duten kezka eta gogoratu du Batzorde Betearazleak horren inguruko akordioa onetsi zuela.

Esan du halaber, ANIMSA kontuan hartu behar dela toki entitateen digitalizazioan zeregin garrantzitsua duelako eta horren inguruko proiektu batean lanean ari delako.

Unzue jaunak, Agoizko alkateak, jakinarazi du martxoaren 24an immatrikulatutako ondasunen lantaldea abiatu zela eta lantaldearen funtzionamendua eta elkartzeko maiztasuna azaldu ditu. Bestalde, gai hori jorratzeko Nafarroako Gobernuak Justizia kontseilariarekin egiten den bilkuraren berri eman du.

Ondoren, Europako funtsen inguruko zenbait esku-hartze egon dira. Bertaratuek jakin nahi dute toki entitateek zuzenean proiektuak aurkeztu ahal dituzten eta eskatu dute toki entitateen parte-hartzea ahalik eta azkarrena eta zuzenena izatea.

Lehendakariak Animsaren zereginaren inguruan esan du Digitalizaziorako Departamentuarekin izan zuen bileran, jada, adierazi zela Animsak parte hartu behar zuela.

Europako funtsen inguruko kezka dagokionean adierazi du kontuan hartu behar dela ministerioak direla funts horiek nola banatuko diren esaten ari direnak eta, horregatik, argitu gabeko alderdi asko dagoela. Hala ere, esan du Federazioak Nafarroako Gobernuak Departamentu guztiei helarazten ari diela plan bateratuak sustatzeko eta funtsen banaketa azkarra eta zuzena izateko eskaera bai eta ezinbestean deialdiak egin behar izatekotan, horien diseinuan parte-hartzeko eskaera ere.

Bestalde, Maya jaunak, Iruñeko alkateak, kaleko zezen ikuskizunen protokoloari buruz galdetu du.

Lehendakariak protokoloa lan-mahai batean landu zutela esan du baina Federazioak ez dakiela orain zertan den eta, beraz, galdetu egiten dutela.

Alvarez jaunak, Castejongo alkateak, txertatze kanpainari dagokionean eskatu du Osasun Departamentuari adierazteko adinekoen joan-etorriak ekidin ditzan eta txertatzeko herri batetik bestera mugitu beharrean, txertatze-puntu gehiago jar ditzan.

Romero jaunak, Aranguren Ibarreko alkateak, bere atsekabea adierazi du txertaketa plana ez delako ari betetzen toki entitateei adierazi zitzaizen baldintzetan.

Eta aztergai gehiagorik ez dagoela, presidente jaunak bilkura amaitutzat eman du, goiburuan aipatzen den eguneko hemeretziak eta hamabost minutu direnean. Idazkari naizen honek honako akta idatzi eta horren fede ematen dut, eta lehendakariarekin sinatu dut.

LEHENDAKARIAREN
ONIRITZIA,

IDAZKARIA,

Juan Carlos Castillo Ezpeleta jn.

Berta Enrique Cornago and.